

EHU-IKASLE ASEGURUA

EZBEHARRETARAKO PROTOKOLOA

Polizaren datuak:

- Poliza zenbakia: **99481517**
- Aseguru hartzailea: **Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea**
- Aseguratzaila: **Zurich Insurance plc**
- Aseguratua: **2021/22 ikasturtean UPV/EHU n matrikulatuta dauden ikasleak**

Zer egin behar du ikasleak istripua badu eta osasun arreta behar badu?

1. Ikaslea joan beharko da seguru etxearekin ituna daukaten osasun zentroetako batera. Hauek dira:

ITUNPEKO OSASUN ZENTROA	PROBINTZIA	HELBIDEA
QUIRÓN BIZKAIA	BIZKAIA	Leioa-Unbe errepidea 33 bis, 48950 Erandio
IMQ VIRGEN BLANCA	BIZKAIA	Mendiri Maisua 2, 48006 Bilbo
IMQ ZORROTZAURRE	BIZKAIA	Ballets Olaeta 4, 48014 Bilbo
QUIRÓN DONOSTIA	GIPUZKOA	Alkolea parkea 7, 20012 Donostia
POLICLÍNICA GIPUZKOA	GIPUZKOA	Miramón pasealekua 174, 20014 Donostia
QUIRÓN VITORIA	ARABA	Esperantza 3, 01002 Gsteiz

2. Hil ala biziko larrialdia bada, eta istripuaren lekua osasun zentro horietatik urrun bada, aseguratuak gertuen daukan osasun zentroan jaso ahal izango du arreta.
3. Behin itunpeko osasun zentroan, aseguratuak **UPV/EHUko txartela, eta NANA edo NANaren pareko dokumenturen bat** aurkeztu beharko du.
4. Komeni da aseguratuak **istripuaren parte**a aldean eramatea. Ikaslearen ikastegiko dekanok edo zuzendariaren sinadura eta zigilua eduki beharko ditu, edo, bestela, kasuan kasuko campuseko gerenteordearen sinadura eta zigilua. Ikasleak ezin izan badu aurkeztu istripuaren parte itunpeko osasun zentroan sartzean, 72 orduko epean aurkeztu beharko du, gehienez ere.

LARRIALDI batean, nola jokatu itunpekoak ez diren osasun zentroetan?

Hil ala biziko kasuetan aseguratuek gertuen daukan osasun zentroan jaso ahalko du osasun arreta. Hil ala biziko arreta hori jaso eta 24 ordura, aseguratua itunpeko zentro batera aldatu beharko da tratamenduarekin jarraitzeko. Aseguratuek 24 orduko epearen barruan jakinarazi beharko dio aseguru etxeari itunpekoa ez den zentro batean dagoela.

Ikaslea itunpekoa ez den zentro batean geratuz gero aseguru etxearen baimenik gabe, aseguru etxeak ez ditu bere gain hartuko zentro horretan aseguratuek jasotako zerbitzuaren fakturak.

Probak edo beste zerbitzu batzuk behar izanez gero, zer egin behar da?

Beheko zerrenda honetako praktikak edo zerbitzuak jasotzeko, beharrezkoa da aseguru etxearen baimena izatea:

- Diagonistiko probak (TAC, RMN, ECO, artroskopiak, gamma grafiak eta abar)
- Ebakuntzak
- Errehabilitazio saioak
- Joan-etorriak (anbulantziak, taxiak eta abar)

Baimena eskatzeko, idatzi edo deitu hona:

Posta elektronikoa: siniestrosgcsmadrid@zurich.com

Telefonoak: 91 458 9070 - 415 eta 210 ext. (08:00etatik 13:30etara - 15:00etatik 17:00etara) - 93.267.10.55 (24 ordu)

Zer egin behar da osasun arreta behar ez duten bestelako ezbeharrak tramitatzeko?

Polizaren babespean dagoen bestelako ezbeharrak tramitatzeko (istripuak eragindako heriotza edo baliaezintasun iraunkorra, eskolak edo matrikula galtzea edo familiako ezbeharra), jarri harremanetan pertsona honekin:

Izen-deiturak: Rubén Marcos Marín

Posta elektronikoa: ruben.marcos@aoncsc.es

Telefonoa: 94 425 15 00